

SANTU EUSKALDUNAK

Gure euskalerriko santu eta doatsuak ezagutzen doguz?

Geiegi ez, beintzat.

Euskal liturji liburuek 16 santu eta 9 doatsu euskotar dakaz bere lerroetan. Bakotxaren bizitza laburrean jakitea, bai norberarentzat baita euskal erriarentzat, onuragarri litzakela uste dot.

OTSAILLAK 6

IGOKUNDEKO MARTIN LOINAZ'TAR MARTIRI SANTUA

1549 urtean eldu zan Japonia'ra leenengo mixiolari kristiñaua: Xabier'tar Frantzisko, napar euskalduna...

50 urte geroago Japonia'ko kristiñauak 200.000 inguru ziran...

Baiña, 1596 urtean Taikosama Enperadoreak ekaitz gogorra sortu eban Kristo'ren jarraitzaileen aurka.

Mixiolari asko espetxeratuak izan ziran, eta beste asko kristiñau zintzoen etxeetan gorde bear euren bizitzak salbatzeko.

Garai onetan etorri zan Filipinas'tik Japonia'ra Loinaz'tar Martin, frantziskotarra, Jesukristoren ebanjelioa zabaltzeko gogo biziz.

Baiña urte bete barru, Taikosama'ren gudariak arrapatu, eta Nagasaki'ko urira eroan eben lotuta, eta an bertako menditxo baten gaillurrean beste 25 martiriekin batera, gurutzean josita, bere odol Kristoren alde emon eban.

Bertako testigu batek esaten dausku salmoak kanta-kantari joan zala bide guztian eriotzara,

30 urteko euskal martiri gaztea... Frai Martin non jaio ete zan? Beasain'en ala Bergara'n? Or dabiz erri bi orreik aspalditik eztabaidan... Baiña santuen benetako aberria —baita geurea be— Jaungoikoaren erreiñua da, betiko zeru zorionsua.

OTSAILLAK 12

ERKITZIA'TAR DOMINGO eta AOZARAZA'TAR MIKEL DOATSUAK

Taikosama il zanean, ekaitza apur bat baretu zan, eta Japonia'ko kristiñauak asko ugaritu ziran... 600.000 baiño geiago.

Baiña 1614 urtean pertsekuziño gogorra eta luzea asi zan, 200 urte iraungo ebana... Eleizak erre, mixiolariak Japonia'tik kanpora bialdu, eta bertako kristiñauak indarkeriz eta bildurrez fedea ukatzera beartu gura izan ebezan.

1622 urtean merkatari jantzita Frai Erkizia, domingotarra, Japonia'ra ixillean sartu zan, beste 6 fraile lagunekin batera.

11 urte emon ebazan Ebanjelioa zabaltzen Japonia'ko lurraldeetan, egunez mendi zuloetan gordeta, eta gauz kristiñauak fedean indartzen.

Baiña azkenez, Nagasaki'n arrapatu eben, eta ikaragarritzko martiri latza emonez, fedea ukatzera beartu nai izan eben.

Urka-abean buruz beera oiñetatik zintzilik jarri eben, eta lurrean egindako zuloan gorputza garraiño sartuz, arriak gaiñera botata, ito egin eben.

30 ordu bizirik iraun eban, fedean sendo, Errexil'dar martiri doatsuak.

1632 urtea zan, eta 36 urte zituan.

AOZARAZA'TAR MIKEL DOATSUA

Ildako mixiolarien utsunea betetzeko mixiolari barriak bear ziran Japonia'n.

Beste mixiolari askoren artean, Oñati'ko dominikar gazte bat joan zan ara, martiritza lortzeko egarri biziz.

Ondo ezkutaturik joan arren, Japonia'ra sartuaz batera arrapatu, eta ikaragarritzko martiritza latza emon eutsoen.

Agoz-gora ipiñi, eta ura edan eraso ia itotzeraiño, eta gero golpeka bota eraso odolaz naastuta. Gero ur-putzu batera buruz-beera sartu eben, arnasarik ezin artuz... Baita azkazal artean orratzak sartu be, eta abar... Gure euskal martiri gazteak miñ-artean, bere borroai, txantxetan, barrez berba egiteko be, ba eukan umore onik.

Azkenean, 1637 urtean, burua ebagita, bere gogo zerurantz zuzenean egon zan, martirien koro ederra artzera... 39 urte zituan.

(Jarraituko dau)

GOIKOETXEA'TAR IÑAKI